



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2008-09-07**


VIURTEA 1.502.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Patxi Zeberioek ez du lortu hirugarren banakako txapela jarraian janztea

**ELDUAIN** Atzo jokatu zen Casino Kursaal Txapelketako finalean, 29-35 galdu zuen Migel Mari Urrutiaren aurka

**ERREAKZIOA** Urrutiak maila ona erakutsi zuela, eta bera deseroso sentitu zela errestoan esan zuen Zeberioek 4



Patxi Zeberio eta Migel Mari Urrutia, besarkatzen, Casino Kursaal Txapelketaren finala amaitu orduko. JOSEBA ZABALZA



Lizartzan Otsolar dantza taldekoek egin zuten emanaldia. E. EZEIZA

## Biharamunarekin baina parrandari berriro ere ekiteko gogotsu

**TOLOSALDEA** Eskualdeko herri askotan festa giroan igaro zuten atzoko eguna 4



# EGUZKILORE

[www.eguzkilorejya.com](http://www.eguzkilorejya.com)

DONOSTIAN Herriari 13, Alderdi Eder Tel. 943 43 15 58  
GALDAKAOAN eta AMOREBILIAN Tel. 94 673 18 31

» **Uzturretik**

Koldobika Jauregi

**E**guraldia nahiko ona, hemen, uharte bidaiari honetatik, ez dut aspaldi inor ikusi. Botiletan mezuak bidali baina alferrik.

Desagertzearen benetan beldurtzen nau, batzuetan hala den ala ez jakiteko arbolaren kontra joan eta zanpa! Hosti ederra hartzen dut, gehienbat ea zeharkatze-ko gai naizen jakiteko. Ikusia daukat mamuek eta izpirituak ahal dutela eta honek beldurtu egiten nau.

Beraiek edonon edo eta edozein tokitik agertzen dira, lur azpitik barrena edo eta itsaso gainetik,

behin ere ikusi nituen hodeien artetik irteten. Hori bai, baieztatu dut ni behintzat ez naizela gai itsaso gainetik ibiltzeko ez eta ere hegan egiteko, horrek esan nahi du oraindik ez naizela desagertzearen prozesuan abiatu.....

Nire etxea buru barruan daukat eta bat-batean hantxe azaldu zen koadrila bat edo behintzat neure buru barruko apaletan zebilen. Entzuna nioen nire lagun galiziar bati *o santa kompañia*-ri zerbait eta haiek ikusi bezain pronto ohartu nintzen.

Denak errenkan zetozen, aurrekoa korneta handi batekin, kamisetan ikurrina bat zeramala-rik, «campeones de Europa!» aldarrikatzen zuen, besteak txalotu eta danborra joaz zihozzen.

Bat batean, liskarretan hasi ziren, ez banien ere oso ondo ulertzen zeren marmarka ari ziren;

mozorrotu egin nahi zutela, zen kontua eta zertaz? Batzuk toreroz, besteak Eskoziarrez, sevillarrez, galaxiako gerlarietaz edota erromatarrez. Oraindik gizaki itxura nabarmenagoa zuen batek, base-rritarrez proposatu zuen.

Orduan bai izan zela isilunea... Bat-batean errenkan berririo jarri ziren eta jarraritu zioten bideari marmar triste batean, lotsati ote zeuden?

Ez dut askoz ere gehiago gogoratzen egun honetaz, esnatu eta hondartzara abiatu nintzen ea mezuririk jaso ote nuen.

Azken bolada honetan noraezean bezala dabil uharte hau eta egia esan nahiago dut hala izatea.

Aspaldian jaso nuen mezu batean ala zioen: «Nire uharte gelditzen ari da, lehen asko ginen baina orain ez dakit zer ari den gertatzen, jendea txapelak puskatzen ari da

eta era berean desagertzen harrotasunarekin».

Biaduktu handi bat egiten hasi dira. Hasieran portu erraldoi bat ote zen pentsatu nuen, baina gero ohartu nintzen biaduktu moduko zerbait zela. Bukatu zutenean konturatu nintzen, urrutian ikusten nituen lurak, lur arrotzak zirela eta neure kulturaz apartekoak; Ni bezalakoak gutxi geratzen dira, lehen uhartearen lurzati honetan, orain marisma bat suertatzen ari da eta goroldioa non nahi.

Norbaitek jasotzen ba du mezua, argi ibili biaduktuarekin. Zorte on.»

Nire uhartearen ordea, ez dago goroldioaren arrastorik, hori bai mamuak non nahi, beti ari dira marmarka isil ezin batean gero eta indartsuago; eta orduantxe izaten da neure kantekin eta esaldi zaharrek hasten naizenean, hiztegi-

txoari ere errepasotxo bat ematen diot.

Konturatu nintzen zenbait abere, landare eta abar berririo ere gorpuztu egiten zirela aipatu orduko, akaso, desagertuak, inork aipatzen ez zituelako. Honela zela konbentzita, behin desertu eremu bateira inguratu nintzen, uhartearen beste aldean, orduantxe hasi nintzaion, landare eta abere aipatzen, baita aspaldian ezagutuak lur sailen izen toponimikoak eta denborarekin bizi sortzen hasi zen.

Aipatzen den guztiak bizi omen dauka eta hori ziurtatu dut.

Nire marmarra neure herriarekin loturik dago eta ahal dudana neurrian egingo dut, zeren hizkuntza ahaztearekin gu eta gure lurra desagertzen da. Hor dago, hor gaude eta beste batzuk gara...

Uhartearen balantza honetan zein gustu.

B **Blogteka** info**Hirukideko proiektua Euskadin saritua**

Droga-menpekotasunari aurre egiteko Erakundeak, Espainiak Unescok duen Kooperazio Batzordeak eta BBVAk antolatzen duten *Premio a la Acción Magistral 2008* izeneko lehiaketaren finalerako Euskadi ordezkatzeko aukeratua izan da Tolosaldeko Hirukide ikastetxea.

Aurkeztutako proiektua, *Bizikidetza Positiborako Heziketa* izenburuaz, Euskadi mailan irabazle bezala hautatua izan da eta ikaslearen artean bizikidetza positiborako balioak eta emozio gaitasunak bereganatzea ahalbideratu nahi du.

Proiektu horretan sentimenduen eta emozioen heziketa,

arauen kudeaketa demokratikoa eta ikaskuntza kooperatiboak lantzen dira, besteak beste.

Zorionak Hirukide osatzen dugun guztioi!

Gora Tolosaldea!

**Hirukide ikastetxearen bloga**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide/>

**Ikasturte hasiera Samaniego ikastetxean**

Bihar, hilak 8, hasiera emango diegu 08/09 ikasturteari Samaniego ikastetxean. Goizeko ordutegiarekin (09:00-13:00) hasiko gara eta autobusek ohiko ibilbidea egingo dute.

**Samaniego ikastetxea**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/samaniego/>

**AHTren erakusketari buruz, erantzunak**

Ez dakit erakusketak horretan zer nolako informazioa emango zuten, ziur aski oso eskasa, baina zuk behintzat Euskal Yaren inguruan informazio askoren beharra duzu. Gauza bat AVE-a da (bai, ohikoa baina garestiagoa da) eta beste gauza bat Abiadura Handiko Linea bat erabili dezaketen beste motatako trenak (hala nola Katalunian edo Madrilen, 8euratik beherako bidai-txartelak ordainduz erabili daitezkeen trenak).

Donostiatik Bilborako tren bat gaur egungo PESA autobusa baina merkeago litzateke, Donostiatik Madrilerainokoa berriz, garestiagoa. Eta dirutzari dagokionez, AHT eraikitzeke diru hori azpie-

giturretarako da, hemengo burdinbideetan ez bada inbertitzen beste edonon erabiliko da, baina ez da ez erietxeetan ez etxebizitzetarako erabiltzeko, Sustapen Ministerioari dagokion dirua delako eta honek horrelakorik eraikitzen ez duelako.

**Xabi**

Dena dela, garestiagoa edo merkeagoa, erosotasunari begiratuta, niri ez zait bater ere osoa iruditzen. Hain justu gure lurraldea makina bat herriz eta herri txikiz osatua dago, beraz, asko eta asko gara hiriburutik urrun bizi garenak. Ez da guretzat eginiko zerbait.

**Mikel**

**Ekologistak Martxan**

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/martin/>

E **Eztabaida** info**Askok irailean berriz heltzen diote egunerokotasunari, udako oporraldiaren ondoren. Oporren ondorengo sindromea delakoa somatu duzue ala asmakeria al da?**

■- «Opor luzeak izanez gero bai gogorra egiten dela buelta, baina sindromearena gehiegi esatea dela iruditzen zait... Batzutan egunerokotasunean hobeto egoten da eta oporrak urtean zehar banatuta izatea».

■ **Ainara**. «Gogorra egiten da, izan ere ederki asko gaude oporretan ezer egin gabe. Baina ez da besterik geratzen lanean hastea baino».

■ **Gorka**. «Nik ez dut somatu. Eta uste dut jendeak exajeratu egiten duela».

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra



**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia)  
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)  
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja  
Tolosa (Bellatokia)



## » Hitzalean

**Karlos Linazasoro**  
(Tolosa, 1962)

**P**ott jauna mendi-bueltaska egitetik dator, hortzak orbelez mukuru.

Uda da, gorri-gorria, eta Pott jauna aspaldi jubilatu zen.

Bakarrik bizi da Pott jauna, etxe tiki goxo batean, liburu ugariaren konpainian. Inoiz ez zen ezkondu, ez du seme-alabarik izan, baina mendia du maitale, eguzkia etxeako erregin, ilargia gau luzeetako zain-tzaile pinpirin.

-«Ez dut ezer gehiago behar!».

Horixe esaten dio bere buruari igande arratsaldeetan, bakar xamarturik sentitzen denean, futbolak haize bortitzak loretxoak astintzen dituen bezala astintzen baititu kaleetako ibiltari dotoreguziak. Eta Pott jaunari ez zaio gustatzen tabernetar sartu eta telebistari begira jartzea, tonto-tonto, garrasika eta haserre, hainbat gizaseme ikusten dituen postura berean.

Nahiago du arrantzara joan, Airo ibaira, amuarrainak harrapatzen. Edo geltokira bestela, trenak nola pasatzen diren ikustera, laino potoloetan bilduak.

Etxean, lehen, maketak egiten zituen: piratontziak, arrantzontziak, belaoztziak, auto antigualekoak, motorrak, baita etxetxoak ere. Artelan benetan bikainak burutzen zituen, ikusgarriak. Gero, lagunei oparitzen zizkien, auzoei, alkateari, basozainari, maite zuen jende guztiari.

-«Mila esker, Pott jauna!».

-«Ez da ezer. Ondo segi. Nahi duzun arte!».

Urtetan aurrera egin ahala, ikusmena dexente galdu zuen, eta eskuetan dardarizoa azaldu zitzaion. Utzi egin behar izan zion maketak egiteari, beraz.

Pott jauna ez da mihiluzea, ez ditu jende-uholdeak atsegin, bakar-bakarrik galtzen da mitxole-taz lehertutako belazeetan. Bazterrak zaintzea du atsegin, bidezidorak, errekaak, arbolak hezur-dura, soroetako usaina, hiriko lorategi gardenak.

Pott jaunak ez du automobilik, beti oinez ibiltzen da batetik bestera, mandatuak egiten, botikara joan behar duenean edo merkaturara, pauso luze arinez, arnas urdin-urdina hartuz.

Egunero entzuten du irratia, egunero bisitatzen ditu zahar-etxeako lagun gaixoak, egunero bazkaltzen du Koxmerenean.

Aspaldi, orain urtebete, zakarrontzi handi bat erosi zuen, lau zatitan banatua. Balkoian ipini zuen. Koxmeri ikusi zion jatetxean, eta zertarako zen galdetu zion:

-«Zakarra banatzeko, Pott jauna. Zakarra birziklatzeko».

# Pott jauna

-«Horiek lanak, horiek!».  
-«Merezi du Ama Lurrak horrenbeste!».

-«Egia! Oraintxe noak bat erostera!».

Eta egun harez geroztik, zabor-banaketa egiten du etxean Pott jaunak, naturak eskertuko diolakoan.

Ostiralero-ostiralero egiten du hustuketa auzoko zaborrontzietara, arratsaldeko zortziak jo ondoren. Poltsatxoak txukun-txukun itxi, eta aldapa jaisten du edukiontzia dauden tokiraino.

Hogeita hamasei eskailera jais-

Urdinak, berdeak, horiak, zabor organikoak botatzeko, arropa erabilia uzteko... Denak balio orain non-bait birziklatzeko!

Berrehun eta bi maila maila asko dira, ordea, Pott jaun agurearen-tzat, eta ostiral askotan nagikeriak jotzen du, alferkeria txoro batek, eta jaitsei-ez-jaitsei ibiltzen da zalan-tzan, bere hezur nekatuekin borrokan. Gainera sargori dago gaur, uda izerdi patsetan dago.

Urteak! Urteak eta urteen ajeak!

Baina ez dio bere buruari barkatzen. Ama Naturarengatik egin beharra dago ahalegintxo. Gainera,

ederbat, gazta, intxaurrak eta ogia.

Poltsatxoak prestatu ditu gero, kontu handiz: batean, zabor organikoak; bestean, beira; hirugarrenean, paperak eta kartoi-atalak; laugarrenean, esne-ontzi eta halakoak.

Eta gaur, beste bosgarren bat ere bai, erabiltzen ez zituen bi jertse zeuzkan eta armairuan.

Denak hartu, eta hirurogeita bost maila jaitsei ditu aurrena, eta gero beste hogeita hamasei. Aitararen batean egin du beheranzko bidea, batere hezurereko minik gabe. Zaborrontzietara hurbildu da.



tero, eta hogeita hamasei eskailera igotzeko. Horiek denak, gehi hirugarren solairutik jaisteko zein hara igotzeko igaro behar dituen beste hirurogeita bostak, ze Pott jaunaren etxean ez baitago igogailurik. Zenbat diren denera, beraz? Bada, hirurogeita hamabi gehi hirurogeita bost bider bi; hau da, berrehun eta bi eskailera.

Auzoa, handia da-eta, zaborrontziz beterik dago. Sei, zortzi, hamar, hamazazpi, Pott jaunak eskailerak bai, baina edukiontzia ez ditu sekula kontatu. Lurpean ere ipini dituzte berriki halakoak, besteak baino askoz ere politagoak Pott jaunaren ustean, guttiago ikusten diren kariak.

Koloretakoak. Kolore desberdinetakoak.

eredu izan behar du auzoan, bai baitaki oraindik jende askok ez duela zaborra bereizteko lanik hartzen.

Eta zer lan da ba beirak eta plastikoa eta egunkariak eta arropak eta bestelako hondakinak bereiztea!

Horrexegatik, Pott jaunak laurogeita sei urteak ondo beteak dituen arren, eta bistatik gaizkitxo dabilen arren, eta berrehun eta bi eskailera igo-jaitsei behar dituen arren, eta bero sargoria dagoen arren, ostiralero-ostiralero egiten du txangoa, eskuetan lau edo bost poltsatxo daramatzala, inoiz hutsekin egin gabe.

Gaur ere, ostirala denez, Pott jaunera balkoian dabil.

Bapo afaldu du, txerri txuleta

Berde kolorekoa egokitu zaio lehena, beirarena. Hantxe, kontu handiz, paperak eta kartoiak bota ditu. Urdinean, botilak bota ditu, banaka-banaka, zazararik ateratzeko. Horian, beti bezala, zabor organikoak bota du, eta zabor organikoaren ontzian, berriz, esne-potoak eta tetrabrikak. Jarraian, arropaontzira joan, eta hantxe utzi ditu bi jertseak, ongi-ongi tolestuak.

Bukatzean, izerdiak kendu du kopetetik, arnas hartu du sakon-sakon, begien parean dauzkan hogeita hamasei mailadi pikoei begira, eta gero irribarre pozezkoa egin du, ase-asea, Ama Naturak ahalegintxo eskertuko diolakoan.

Eguzkiak, beherantz datorrela, su hartu duela dirudi.

## Eskaintza aldaketa izan da nabarmentzekoa larunbateroko azokan

**Azoka** » Fruitu eta barazki asko ikus zitezkeen mahaletan; neguko apaingarri landareak ere hasi dira dagoeneko.

**PABLO ALBERDI**

Udazkena gainean dugula esan genezake azokan atzo ikusitakoaren arabera. Fruta kopurua asko igo da oporrak eta gero, eta atzo sagar mota asko ikusi genituen. Reineta desberdinak, errezila, perlestina eta beste motatakoaka ere bai. Hauekin udareak, pikua eta matxakanak saldu ziren.

Postuetan ere barazki asko ikusi genituen, ia gehienak udarako oraindik, baina nobedaderen bat edo beste ikusi genuen. Aurtengo lehenengo babarrun zuriak, oraindik lekatan aurkeztu ziren, eta hauekin, tomatea, baina, Ibarrako piparra edo eta kalabazina izan ziren nagusi mahaletan.

Berdura plazan ere dagoeneko hasi dira negu parteko apaingarri landareekin, eta datozen asteetan eskaintzak gora egingo du ziurrenik. Ziklamenak eta azaleak ere ikusi genituen.

### » ATZOKO AZOKA

#### BERDURA PLAZA

	Merk.	Gares.
Ziklamena	5,50	-
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Kalendula	2,50	-
Lobelia	4,50	-
Biola	3,00	-
Salbia	1,00	1,20

#### BERTAKO PRODUKTUAK

Onddoa	26,00	-
Ziza horia	18,00	-
Udarea	1,50	-
Perlestina	1,50	-
Errezil sagarra	1,00	-
Pikua	4,00	-
Urra	2,00	3,00
Baba	3,00	4,00
Roblea	1,00	-
Ibarrako piparra	4,00	7,00
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	3,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Baina	4,00	6,00
Kalabaza	1,50	3,00

#### PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Kalabaza	1,60	3,04
Dilistak	2,40	-
Azenarioa	2,00	2,50
Txitxirioak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00
Arbi morea	4,00	-
Tipula	1,75	2,00
Zerba	2,00	-
Letxua	1,00	-
Ahaultzak (200gr)	3,00	-
Arraultzak	3,50	-
Mermelada	3,00	3,60

# Zeberio II.ak ezin izan du hirugarren Casino Kursaal-eko txapela jantzi

**Elduain** » Urrutiak sakearekin asmatu zuen eta horrela egin zion min Zeberio II.ari; nafarrak «maila ona» erakutsi zuen.

## NEREA URBIZU

Patxi Zeberio atzo Casino Kursaal Txapelketako finala Urrutiaren aurka jokatu zuen, baina aurten ezin izan du txapela eskuratu 29-35 Hernaniko Galarretan galdu ostean. Atzokoa irabaziko balu txapelketa hau hirugarren aldiz jarraian irabaziko luke. Urrutiaren arma sendoena saka izan zen. Zeberio II.a irabazten hasi zen norgehiagoka «borrokatua», baina 8. tantotik aurrera, gutxi, gorabehera, berdintzen hasi zen partida, gutxiatik baina elduaindarra aurretik izanik.

Zeberio Urrutiaren «joko ona» azpimarratu zuen, bera baino hobea izan zela esanez. Jokoaren garaian «deserosoegi sentitu nintzen erretoan. Indartsu nengoan, bai-



Leire Olaberria ikaztegiak sariak banatu zizkien Zeberio eta Urrutiari. JOSEBA ZABALZA

na gero jokatu egin behar da. Dударik gabe, Urrutia zoriondu behar nago, banaka jokatzeko ere oso pilotari ona dela erakutsi du».

Partida 14. tantoan berdindu zen. Garailea edozein izan zitekeela hasieran baino argiago zegoen.

Ordutik aurrera nagusitasuna Urrutia nafarrak erakutsi zuen hori markagailuan islatzen zelarik. Elduaindarraren aurpegian urduritasuna igertzen hasi zen gutxiarka. Urrutiak tanto horietan txapela «hurbil ikusten zuela» nabaritzen

zen, antza «lasai» zegoen. Zeberio atzeangelditzen ari zen, baina arriskatzeko hasi zen markagailuan 30-22 saldiastarraren alde jartzen zuenean. 31-22 zihoztenean Urrutiak aukera eman zion Zeberio hutsegite bat egin zuenean,

## » DATU BATZUK

- **Torneoa.** Casino Kursaal.
- **Pilotariak.** Migel Mari Urrutia eta Patxi Zeberio.
- **Emaitza.** 29-35 Urrutiaren alde.
- **Partidaren iraupena.** 86 minutu.
- **Pilotakadak.** 235.
- **Ikusleak.** 800 ikusle.
- **Bitxikeriak.** Leire Olaberria omendu zuten Olinpiar Jokoetan lortutako brontzeko dominarengatik. Sari batzuk ikaztegiak banatu zizkien Urrutiari eta Zeberioari.

eta orduan tanto batzuk egitea lortu zuen elduaindarrak. Momentu batean 33-29 egon ziren: lau tanto-ko alde bakarrik tartean. Zeberio saka berreskuratu zuenean ez zuen aprobetxatu, sakez hutsegitea egin baitzuen. Honekin partida erabakita zegoen ia.

Ordu eta laurden inguru iraun zuen partidak. Alderik handiena 10 tanto-ko izan zen (22-32).

**Leire Olaberria omendu zuten** Galarreta pilotalekuan Leire Olaberria pista txirindularia izan zen. Pekingo Olinpiar Jokoetan lortutako arengatik omendu zuten bertan. Ikaztegiak partidaren bukaeran sariak banatu zizkien bi erremonte jokalariei.



## AHTren aurka, Gazte Egunean

**ZIZURKIL** • AHTren aurkako Gazte Eguna antolatu zuten Zizurkilten atzo, eskualde mailakoa. Aurrera plazan bazkaria egin zuten eta 150 lagun bildu ziren guztira, «giro bikaina izanik». Ondoren, jokuak egin zituzten gazteek. AHTren aurka azaltzeko manifestazioa egin zuten, eta bukatzeko kontzertuak izan ziren. ESTI EZBZA



## Carlota Ortuzarren erailketa salatu dute

**TOLOSA** • Emakumeen aurkako indarkeria aurre hartu lelopean Tolosan herenegun gauean elkarretaratzea egin zuten Carlota Ortuzarren erailketa salatuz. Idatzi bat irakurri zuten: gogor salatu nahi izan zuten «itxura guztien arabera, emakume baten aurkako eraso izan dena». INIGO TERRADILLOS

## berria beka 2008

### Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **8 beka**, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**

### Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietaren

### Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2008-09-08  
Eskaera egiteko orria eta beka deialdia [www.berria.info](http://www.berria.info) helbidean dago eskuragarri

## DONOSTIAKO komunikazio enpresa batek KUDEATZAILEA behar du:

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...), eragileekin izan beharreko harremanen kargua hartuko duen pertsona baten bila gabilta.

### Eskatzen da:

- Kudeaketa-administrazio arloa ezagutzea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualdea ondo ezagutzea
- Euskara maila ona izatea.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa izanez gero, curriculuma bidali. argazkiarekin, [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net) helbide elektronikora edo beste helbide honetara, irailaren 10a baino lehen: JARDUNA S.M. - Giza Baliabideak saila  
Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 - Andoain

# Festetako azken astinduak



**Izaskun auzoa.** Heldu nahiz gaztetxoentzako egitaraua prestatu dute aurtengo jaietarako Tolosako auzoan. Atzo goizean, toka txapelketa jokatu zen alde batetik, eta bestetik, Udaberri dantza taldekoen emanaldia izan zen. **E. EZEIZA**



**Lizartza.** Ikasturtean zehar prestatutako dantzak jendaurrean erakutsi zituzten atzo Lizartzan, herritarrek prestatutako egitarauaren baitan. Bitartean, beste zenbait lagun zartagia eskuan hartu eta patata tortilla sukaldatzen aritu ziren, zein baino zein, gogo handiagoz. **E. EZEIZA**



**Zizurkil.** Eguneko ekitaldien baitan, atzo arratsaldean, Halterofiliako Elbarrena Trofeoa jokatu zen. Bertan Zizurkilgo Danena Olaederra taldekoek hartu zuten parte. Jende ugari bildu zen bertan, herritarrek animatzeko asmoz. **E. EZEIZA**

**Bedaio.** Jende ugari bildu zen atzo, eta giro paregabea izan zen Bedaion. Bertan malabareekin lotutako jokuetan parte hartzeko aukera izan zuten auzotarrek. Izan ere, Amalur taldekoek hainbat tresna eraman zituzten jendearen abileziak erakusteko. **N. URBIZU**



**Alkiza.** Txirrindulari gaztetxoak ibili ziren lehian atzo goizean Alkizan. Bi mailatan hartu zuten parte 45 lagun inguruk. Hauek herriko plazatik abiatu eta ingurutik itzuli bat eman behar zuten erlojupeko proban. Irudian, Joseba txirrindularia. **E. EZEIZA**



**Elduain.** Atzokoan ere ez zuten aspertzeko betarik izan Elduaingo umeek. Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak gaztetxoenen irribarreak eskuratu nahian ibili ziren. Ondoren, buruhandiak atera ziren lasterka, denak astintzeko asmoz. **E. EZEIZA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Zaintzailea.** Tolosan arratsalde-etan 2 ume zaintzeko pertsona bat behar da. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 630 98 43 00.

■ **Irakaslea.** Lazkaoko ingelesezko akademiarako irakaslea behar dugu. Bidali curriculum vitae [hizkuntzaeskola@gmail.com](mailto:hizkuntzaeskola@gmail.com) helbidera.

### ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza bat hartuko nuke alokairuan Tolosan, Ibarrran, Villabonan edo inguruetan. 635 71 24 44.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza bat alokatzen da Lekunberrin. 60 m<sup>2</sup>, 400 euro hilabetero. Interesatuak deitu 679 20 14 60 telefono zenbakira eguerditik aurrera.

## MINTZALAGUNA TOLOSAN EUSKAL HIZTUNAK BEHAR DITUGU

Euskararen alde egin nahi baduzu, eta horretarako astean **ordu bete** baldin badaukazu, dei ezazu telefono honetara: 605612125 edo idatzi [mintzalaguna@euskalerria.org](mailto:mintzalaguna@euskalerria.org)

**MINTZALAGUNA taldea**

E **Elkarrizketa**

JOSEBA SAGASTIBELTZA › Dantzaria

# «Oraingoz, behintzat, ez daukat dantza uzteko inolako intentziorik»



Joseba Sagastibeltza txikia zela hasi zen Leitzako dantza-eskolan eta gaur egun dantzatzeko jarraitzen duen dantzari bakarreko dantza-eremuko da. N. GARZIA

**Leitza** » Joseba Sagastibeltza dantzari iaioa da eta urte asko daramatza herriko dantza eskolan. Bera hasi zenetik oso gutxi dira gaur egun dantzan jarraitzen dutenak.

**NAIARA GARZIA**

Joseba Sagastibeltzak (Leitza, 1978) makina bat urte daramatza Leitzako Aurrera dantza eskolan. Dantzari bezala hasi zen eta orain

txikien taldean, mutilenean, irakasle lanetan aritzen da. Gaur egun 2 dantza talde daude, handiena eta txikiena. Txikian 12 mutil inguru eta 20 neska hasi dira eta handian

ere kopuru bera errepikatzen da gutxi gorabehera: 20 neska eta 12 mutil.

**Zenbat urte zenituela hasi zinen?**

Urteetako oso txarra naiz, gauza batzuk oso ongi gordetzen ditut buruan, baina beste batzuk ez. Baina nik gogoan daukat 8 edo 9 urte nituela Pitulariaren hasi nintzenean. Txikitan behin eta berriz esan zidaten hasteko, nik ez bainuen dantzatzeko hasi nahi, ez zi-

daten bakean uztean, hasteko eta hasteko, eta hasi egin nintzen. Pitularik berriz txanda batean esan zidan berak 10 urtetik gorakoak hartzen zituela.

**Pitulari zure irakaslea izanduz zen?**

Berak irakatsi zidan niri. Antonio Sagastibeltza ere aritu zen, Kontxi Zozia ere bai, baina gurekin betiere gehiena Pitulari ibili zen urte asu-koan. Gero dantza taldeko zenbat

dantzari hartu zituen, berari laguntzeko borondatea zutenak.

**Zu hasi zinenetik zertan aldatu da dantza taldea, jende kopuru aldetik eta errepertorio aldetik?**

Nik uste funtzionamendua berdina izan dela. Dantza taldean beti zikloka mugitu gara, garai oso onak izan ditugu eta ez hain onak. Batzutan jende asko mugitu gara, emanaldi asko izan ditugu kanpoan, zenbaitetan ezetz esanez ere bai beste emanaldiren bat gendukalako, eta gero garai baxuagoak ere izan ditugu, jendeak gogorik ez, eta orduan entseatzera biltzeko ere oso gaizki ibili gara.

**Orain ze ziklotan zaudete?**

Nik uste Txekiara joan ginenean gorakada handi bat izan genuela, gazte taldean ume mordo bat zeu-

**Txikitan behin eta berriz esan zidaten hasteko, nik ez bainuen dantzatu nahi, ez zidaten bakean uzten**

**Dantza taldean beti zikloka mugitu gara, garai oso onak izan ditugu eta ez hain onak**

den, mutil eskasia izan arren, baina hori betikoa da. Talde handian ere dantzari asko zeuden.

**Nolako izan zen esperientzia hori?**

Txekiakoa boom bat bezala izan zen. Joan gineneetatik ez ginen inor Euskal Herritik kanpo dantzatzeko ibiliak, behar bada pare bat, baina gehientsuenak sekula kanpora atera gabekoak ginen. Sakrifizio handia izan zen baina gero emaitzak ere merezi izan zuen. Hango tratua oso ona izandu zen.

**Nola suertatu zen hori?**

Hori nire lanaren bitartez suertatu zen, eta lanean ere haiekin kontaktuan egotea tokatu zaigu, eta beti esker onak eman dizkigute eta oso oroitzapen onak dituztela esaten digute. Aurten ere gonbita luzatu didate jaialdira joateko, baina ez talde bezala.

**Ingurutxoarekin zer egin zenuten 2004. urtean?**

Olazaranek joan den mende hasieran idatzitako liburua berreskuratzen saiatu ginen, horren interpretazio bat edo eginez. Ezin da esan berak Ingurutxoak ikusi zuen bezala dantzatu genuenik, baina berak esplikatzeko zuenarekin ulertzen genuena dantzatzeko saiatu ginen. Honela joan den mende hasieran Ingurutxoak dantzatzeko zen moduan dantzatzeko saiatu ginen

2004ean. Aurretik Kultur Astean hitzaldi bat egin zen Aurreran eta bertan zer egiteko asmoa geneukan azaldu genuen. Dantzatzeko erarekin batera arropak ere aldatu genituen.

**Arropak Ingurutxoan bilakera bat izan du, ez?**

Bai. Argazki batean dantzariak txuri-gorritz jantzita dantzatzeko zutela ikusten da. Gero gu hasi ginenean *mil rayasekin* dantzatzeko. Ondoren mahoizko galtzekin hasi ginen eta liburu hori hartu genuenean pare bat aditurekin hitz egin genuen garai hartan jendea nola janzten zen ikusteko. Argazki bilketa zabal bat ere egin zen herriari barrena, eta Errenteriako jostun batek egin zizkigun argazkietatik aterako jantziak. Gaur egun arropa horiekin dantzatzeko dugu eta oraingoz horiekin dantzatzeko asmoa daukagu.

**Ingurutxo Leitzako dantzari garrantzitsua da.**

Bai, eta horregatik guk emanaldi guztietan sartzen dugun dantza bat da, bai Leitzan, bai kanpoan.

**Zuri zein da gehien gustatzen zaizun dantza?**

Nik uste Ezpatadantza esango ez banu, bat baino gehiago harrituta geldituko litzatekeela, dantzarienezako ikaragarria da... gazte bati Ezpatadantza dantzatzeko esaten diozu eta...

**Zer sinbolizatzen du Ezpatadantzak?**

Ezpatadantzaren inguruan irakurketa eta interpretazio ezberdinak daude. Zenbait irakurketekin ados nago, iruditzen zait zentzua badutela. Oinarrizko pausoak oso gutxi ditu, pare bat, eta pauso horiek elkarrekin konbinatzean dantza, banaka, binaka, launaka, eta koreografi luze batekin eginez, gero. Baina dantzak berez zati ezberdinak dauzka. Aurrenekoan pauso bera egiten da mugimendu ezberdinekin eta leku aldaketa ezberdinekin, eta hori hanketan ze gaitasun daukazun erakusteko da. Gero beste zati bat du, erremintekin egiten dena, ezpata eta makilekin, batzuk esaten dute guda sinbolizatzen duela. Azkeneko zatian dantzari bat altxatzen dutenean gerran hildakoei omenaldi bat dela diote. Beste batzuk, berriz, beste irakurketa bat egiten dute.

**Noizkoa da abestia?**

Kanta horren jatorria ezin da jakin. 1.600 inguruan bada idatziren bat esaten duela dantza hori dantzatzeko Durango aldean, eta jakitea hura asmatu zuenak zergatik egin zuen edo zer esan nahi zuen, oso zaila da. Gero orain, Leitzan ez da dantzatzeko garai hartan jendeak Durango dantzatzeko zuten bezala. Jatorria ez du Leitzakoa.

**Baina herriarentzat esanahi berezia al dauka?**

Bai, aspalditik dantzatzeko delako San Tiburtzio egunean, 1900. urteko aurrera. Festari hasiera ematen dion ekitaldia da, eta Leitzako jatorria izan ez arren, orain hemen gaur egun guk dantzatzeko dugun bezala, nik uste dut Euskal Herrian ez dela inon ez dantzatzeko.



Uztailen hasi ziren entseatzeko eta hau izan zen lehen eguna. N. GARCIA



Joseba Sagastibelza eta Onintza Bengoetxea herriko plazan dantzatzen. HITZA



Joseba Sagastibelza Gipuzkoako Brokel dantza dantzatzen. HITZA

**Zer berezitasun du Leitzako Ezpatadantzak?**

Besteekin parekatuz gero baditu zenbait gauza ezberdinak. Dantza pausoak pixka bat ezberdinak dira eta *kruzeak* eta egiturak aldatzen dira. Musikak ere aldaketa badu. Lehen garai batean dantzatzeko omen zen, jatorrizkoa dena, hau da, Leitzan izan ezik beste lekuetan dantzatzeko dena, eta Leitzan dantzatzeko dena. Baina noski, hasi ziren esanez ez zela modua 2 Ezpatadantza izatekoa eta nik uste Euskal Herriko dantzari gehienek modu horretara dantzatzeko dutela. Leitzan, berriz, Leitzara ekarri zuten bezala mantendu da. Mantendu hori, halere, oso erlatibo da, urteik urtera irakaslearen arabera aldaketa txikiak egiten baitira.

**Hori jendeak nabaritzen du?**

Beharbada jende arruntak ez du nabaritzen, esan nahi dut, dantzaren munduan sartuta ez dagoen jendeak, aldaketa hori ez baita urte batetik besterakoa; irakasle bakoitzak pixka bat aldatzen du, baina

**Joan den mende hasieran Ingurutxo dantzatzeko bezala dantzatzeko saiatu ginen 2004ean**

**Ezpatadantzaren inguruan irakurketa eta interpretazio ezberdinak daude**

**Dantzari fina ez da hanka gehien altxatzen duena, dena hartu behar da kontuan**

100 urte hartuz gero, beharbada dantza asko aldatu dela ikusiko genuke.

**Errepertorioa aldatzen joan zarete urte hauetan guztietan?**

Jose Luis Vallejo izeneko tolosar batek sekulako lana egin du Leitzako dantza taldearekin. Bera dantza irakaslea da eta beti borondatez etorri izan da, ezer kobratu gabe. Berak dantza asko ezagutzen ditu, eta dantza berriak ikasten lagundu izan digu. Gu txikiak ginela ere talde handiarengana etortzen zen dantza berriak erakustea, eta gurekin ere erlazio oso ona dauka. Nik uste orain 30 dantza inguru baditugula errepertorioan.

**Zuri bereziki gustatzen zaizun dantza bat?**

Kortesko palotea oso polita da, adibidez, eta bizia. Nafarroan dantza mordo bat daude makilekin eta oso politak dira. Horiek mutil dantzak dira. Neskenak aipatzeko orduan arazoa da nesken dantza oso gutxi daudela.

**Zergatik?**

Horren arrazoia da garai batean gizartea oso matxista zela eta dantza egiten zuten bakarrak mutilak zirela. Orain, berriz, kontrako pasatzen da, gero eta mutil gutxiagok dantzatu nahi izaten dute, pilota eta futbola hor izaten dituztelako eta neska pila bat izaten dira dantzatu nahian. Askotan neskek mu-

tilen dantzak dantzatzeko dituzte. Badaude purista batzuk esaten dutenak mutilen dantzak mutilak dantzatu behar dituztela eta neskek bikoteen dantzak soilik dantzatu behar dituztela, eta gutxi gehiago, Sardinera, adibidez...

**Bikoteka dantzatzeko den abesti politen bat?**

Larrain dantza oso polita da eta Polkak ere gustukoak ditut.

**Euskal dantza nolakoa da beste herri dantzetakoekin parekatuz gero? Kontenitua?**

Hitza hori izan daiteke, kontenitua. Adibidez, kanpoko bikote dantzak ikusten dituzu eta oso sensualak dira, beti erakusten dute gorietan egin nahi duzula. Euskal Herriko bikote dantzatan hori ez da ikusten. Eta esango nuke guk ezagutzen ditugun dantza gehienak banakako dantzak direla, ez dira bikoteka egiten direnak. Horrek adibidez Txekian atentzioa ikaragarri eman zien. Gure dantza gehienak banakakoak dira, ez dago gorietatik, neska alde batetik, mutilak bestetik. Bueno esaten da, lehenago Ingurutxo festetan gauean dantzatzeko zela ligatzeko, baina zuk ikusten duzu dantza, eta katxondean ligatzeko balio dezake, baina dantzan berez ez da erakusten ligatzeko intentziorik. Euskal Herriko dantza gehienak gudarekin lotuta daude, edo elkarren arteko borroketekin edo bestelakorberaren abileziak erakustea dute helburu.

**Ze abilezi izan behar ditu dantzari batek?**

Era askotako dantzak daude. Badaude dantzak oso arina denak dantzatu ditzakeenak, oso baldarra denak, erritmo erraz hartzen duenak, edo hartzen ez duenak. Baina badaude beste batzuk zailagoak direnak. Ezpatadantzan azkeneko urteetan jendeak hankak gehien zeinek altxatzen duen, horri erreparatzen dio. Baina garrantzitsua ez da zeinek hanka gehien altxatu. Dantzari fina ez da hanka gehien altxatzen duena, dena hartu behar da kontuan: pausoak nola egiten dituen, gorputzak nola adierazten duen...

**Zuk nabaritzen duzu gorputz batek adierazten duenean edo ez?**

Batek igual hanka ikaragarri altxatu du, baina ikusten duzu tentsioan daukala gorputza, ez dela lasai ari, hanka altxatu arren. Beste batek beharbada hanka gutxiago altxatuko dizu, baina beste gauzak hobeto egingo ditu. Dantza ez da hanka altxatzea bakarrik, gauza gehiago hartu behar dira kontuan. **Teknikoki dantzari zailena zein da?**

Nik uste dut Iparraldekoak direla zailenak. Hango dantzek salto asko dituzte, eta hankak oso maiz gurutatu eta zabaldu egiten dituzte. Niretzako teknikoki zailenak horiek dira.

**Aurrera begira dantzatzeko jarraitzeko asmoa duzu?**

Bai. Egondu naiz orain baino engantxatuagoa, baina oraingoz behintzat, ez daukat dantza uzteko inolako intentziorik.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_publicidad@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Azoka

■ **Leitza.** Taloaren Eguna, 10:00etatik aurrera plazan.

### Jaiak

■ **Alkiza.** Meza eta 10:15ean, pilota, arratsaldean Pitxoi Tiraketa, asto lasterketa, jarraian Alurr dantza taldea eta erromeria.  
■ **Elduain.** 10:30ean meza, ondoren hamaiketako, 12:00etan argazki lehiaketaren sari banaketa, 12:30ean pilota, arratsaldean Trial erakustaldia eta Trikidance.  
■ **Lizartza.** Udalaren egitaraua: 18:00etan, Zirika Zirkus. Herritarrena: Goizean, goiz deia, poteoa eta toka; arratsaldean sokadantza eta Iparraldeko jokoak.  
■ **Tolosa.** Bedaio: 11:00etan meza, ondoren hamaiketako, 13:00etan Txirrindulari Igoera, 17:00etan herri kirolak, ondoren Ingurutxo; eguna amaitzeko Mondeju Jatea. Izaskun: 09:30ean diana, Udal Txistulari Bandarekin.  
■ **Zizurkil.** Goizean Jokolandia, 11:00etan ardi zakurren exhibizioa, 16:30ean jolasak eta dantza eta 20:30ean Fermin Valencia.

### Zinema

■ **Tolosa.** Gaur: 17:00etan, *Wall-E*; 19:30ean, *El caballero oscuro*; 22:00etan, *Sexo en Nueva York*.  
Bihar: 20:30ean, *El caballero oscuro*.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

#### GAUR

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz aztoa, 9. 943 67 51 18.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.  
**BIHAR**  
■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Atzo Irurako ikastola berriaren eraikina inauguratu zuten herritarrek ere barrutik ezagutu zezaten; ipuin bat erabili zuten ikastolaz aritzeko, eta orain, ipuinari jarraipena emateko «gogotsu» agertu dira.

# «Eta ipuinak jarrai dezala...»

## NEREA URBIZU

**H**asitako ipuin politari jarraipen polita eman nahi diote Iruran, ikastola berriaren bitartez. Atzo inauguratu zuten eraikina eta herritar askok ezagutu nahi izan zuten barrutik. Ekitaldian herritar dantzari batzuk dantzatutako *Agurra* eta biolinekin bi ikasle ohik jo zuten Beldorba eta *Lili bat* kantuak entzun ahal izan ziren.

Arantxa Manterolak GIEko lehendakariak, Koldo Tellituk Ikastolen Konfederazioko lehendakariak, Partaide taldeko zuzendari den Jose Luis Sukiak, Hezkuntza Saileko ikuskaria den Gema del Rio parte hartu zuten.

Aurreko ez gain, Marimi Ugalde Irurako alkateak, Sorkunde Irazu Ikastolako lehendakariak eta Josune Aiestaran ikastolako zuzendariak ere bertan izan ziren. Ikastola egiteko arazoak eta emandako pausoak azaldu zituzten. Besteak beste, Kilometroak 2008 bertan egitea, Ikastolak, txikia izanik ere, ematen duen «kalitatezko zerbitzua» azpimarratu zuten. Hainbat pertsona eta erakunderi eskerrak ematea izan zen hizlariak gogoratu zutena.

Ez ziren animoak emateko hitzak falta izan, ezta eskerrak ematekoak ere. Atzo entzun ahal izan zen bezala, «orain ikastola erabiliko dutenek emango diote kolorea eta bizia ikastolar». Aurretik egin dako lanari esker egin ahal izan da.

Eraikina barrutik ezagutu zuten ondoren: liburutegia, musika gela, bulegoa ikasgelak bigarren solairuan... eta bukatzeko, hurbildu ziren guztientzat hamaiketako izan zen pilotalekuan.



Josune Aiestaran, atzoko inaugurazioan herritarrei zuzentzen. Eskerrak emateko aprobetxatu zuen ere. ESTIESTEZA

## Oharra herritarrentzat

Marimi Ugalde alkateak Kilometroak jaialdirako hilabete falta den honetan, herritarrei eskaera berezibate egin nahi izan zuten: aparkalekuak eta herrian izango diren seinale berriak errespetatzea eta betetzea, hain zuzen. «Aurretik izan daitezkeen eragozpenak barkatu, eta eskerrak asko ere hauek bete zitezagatik, denon hoberako izango da».

«Eta ipuinak jarrai dezala»: etorkizun luze eta amaierarik izango ez duen ipuin ederra izanik.

**@ Bideoak.** Eraikin berriaren inaugurazioko bideoak ikusgai daude nahi izanez gero, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren webgunean, *bideoak* atalean:


[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)



Herritarrek eraikina ezagutzeko aukera izan zuten inaugurazioan. N. URBIZU



bidali opor hauetako argazkiak!



Sari nagusia

2. saria

3. saria



Beti Alai jatetxea



Ibarra **Azoka** dendak eskaintako saski berezia.

Amorotoko Altuena landetxean, bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia.

Tolosako **Beti Alai jatetxean**, bi pertsonentzako bazkari edo afaria.

## ARGAZKIAK NORA BIDALI

◦ **P. elektronikoa:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info  
◦ **Postaz:** Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA  
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzaaldeko HITZAren egoitzetara ekarri

Parte hartzaile eta boto emileen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!